


## 4. DIRU SARRERAK

“JJ soberakinik ez” enpresak, soberakinak musu-truk emango dituela kontuan izanik; diru sarrerak izateko, eta kostuak ordaintzeaz gain, etekinak izateko: arestian aipatutako enpresa ezberdinen diru laguntzak erabiltzeaz gain, kolaboratzaileen eskutik laguntzak jasoko ditugu. Horrela, gure enpresaren diru sarrera nagusi edo guztiak jasotako enpresen diru-laguntzen zati bat izango dira.

Diru-sarrerak nondik jasoko ditugu?



Diru laguntzen %30a erabiliko dugu enpresa bernetik hobetzeko. Hori horrela delarik, diru laguntzak diagrama honetan ikus daitezkeen bezala banatuko ditugu; izan ere, diru laguntzak, hainbat eremutatik jasotzea espero dugu: Eusko Jaurlaritza eta Donostiako elikadura sektoreko diru-laguntzak; CAF, Irizar bezelako enpresen kolaborazioak eta azkenik, kolaborazio boluntarioak ere jasotzea espero dugu herritarrengandik.

Beraz, Eusko jaurlaritzak eta Donostiako elikadura sektoreko diru laguntzak %35ekoak izango diren bitartean, herritarrengandik jasotzea espero ditugun kolaborazioak %10ekoak izango dira eta CAF eta Iriza bezelako enpresek %20eko kolaborazioak jasoko ditugu.

Zergatik erabaki dute gobernu edo enpresa hauek gurekin kolaboratzea diru laguntzen bidez?

Hasteko, gobernuak dirua emango digute beraiantzak onuragarria delako, izan ere, Donostiko hiria hainbat baliabide eskaintzeagatik egin da ezaguna eta ondorioz, hurrengo urteetan laguntza hau handitzea espero dugu gure “JJ” enpresa bezalakoak hobetzeko.

Bigarrenik, CAF edo Irizar bezelako enpresentzat ere onuragarria da gurekin kolaboratzea, beraien itxura eta izena hobe dezaketelako eta honen bidez, erosle gehiago lor ditzazkete.

Hirugarrenik, herritar ugarik gizarterekiko betebeharrak sentitzen dute eta derrigorrezkoa ez bada ere beraien aportazioa ematea gustoko dute. Gainera, guk ez dugu presiorik ezarriko badakigulako nolako laguntza eskaini dezakeen gizarteak.